**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2025SDBD0015 **Erreg. data**/Fecha reg**:** **Erreg. zk** ./ Nº registro**:** 000000
**Gaia/**Asunto**:** 10.3. DIRULAGUNTZA LERROA: 50/50 PROIEKTUA ERRENTERIAKO HERRI IKASTETXEETAN DIRU-LAGUNTZA (2025-2026 ikasturtea) / 10.3.: SUBVENCIONES PARA DESARROLLAR EL PROYECTO 50/50 EN COLEGIOS PÚBLICOS de ERRENTERIA (curso 2025-2026)
**Eskatzailea**/Solicitante**:** ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)**/DNI(NIF): P2007200E
**Kokalekua**/Emplazamiento**: ERRENTERIA**

**10.3. DIRULAGUNTZA LERROA: 50/50 PROIEKTUA HERRI IKASTETXEAN GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA. OINARRI ESPEZIFIKOAK (2025-2026 ikasturtea)**.

LINEA DE SUBVENCIÓN 10.3.: SUBVENCIONES PARA DESARROLLAR EL PROYECTO 50/50 EN COLEGIOS PÚBLICOS ERRENTERIA (Curso escolar 2025/2026). BASES ESPECÍFICAS.

### 1- Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, 50/50 proiektua garatzeko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.mailetako ikastetxe publikoetan, eraginkortasun energetikoa eta gizartea kontzientziatzea helburu duten ekintzak sustatzeko helburuarekin.

Udalak, Errenteriako Klima eta Energia Iraunkorrerako Ekitza Planeko (Aurrerantzean KEIEP) helburuekin bat etorriz, behar den bultzada publikoaren bidez, honako misio hau gauzatzen laguntzen du: energiaren kontsumoan eraginkortasuna areagotzen, energia sistema lehiakorrago, seguruago eta iraunkorrago lortzen, ingurumen eragina edo inpaktua gutxitzen, kontsumitzeko energia gutxiago erabiltzen eta kanpoko baliabideen mendekotasuna murrizten.

### 1- Objeto de la subvención

El objeto de esta línea es el desarrollo del proyecto 50/50 en los centros escolares públicos que imparten 5º y 6º de primaria, con objetivo prioritario de promover acciones que persigan la eficiencia energética y la concienciación social

El Ayuntamiento, de conformidad con los objetivos del Plan de Acción para el Clima y la Energía Sostenible de Errenteria (En adelante PACES), tiene como misión contribuir, mediante el necesario impulso público, a aumentar la eficiencia en el consumo de energía y, con ello, a la consecución de un sistema energético más competitivo, sostenible y seguro, al disminuir el impacto ambiental, requerir menos energía para el consumo o la producción y reducir la dependencia de recursos energéticos externos.

ESKU93dd105a-0b0a-411d-a40f-34fbb3891453

Energia oinarrizko ondasuna da eta bizi-maila duina lortzeko behar dugu. 2016an Oarsoaldeko eskualdeak, garapen-agentziaren bitartez, energia-plana definitu eta abian jarri zuen eta lan-esparru horri eutsiz, energia aurreztu eta ingurumena zaintzearen arloan jarduera ezberdinak garatu ditu. Horien guztien helburua herritarrak eta udal-langileak eraginkortasunez nahastea izan da. Bai energia-planak, baita bere esparruan garatu diren jarduerek ere, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumena eta Obra Hidraulikoak Sailaren laguntza ekonomikoa izan dute.

La energía es un bien básico, necesario para lograr un nivel digno de vida. En 2016 la comarca de Oarsoaldea, a través de su agencia de desarrollo, definió y puso en marcha su plan de energía y en ese marco de trabajo, ha desarrollado diferentes actuaciones en materia de ahorro de energía y cuidado del medio ambiente en las que ha tratado de implicar de manera activa a la ciudadanía y al personal municipal. Tanto el plan de energía como las actuaciones que se han desarrollado en dicho marco siempre han contado con el apoyo económico de la Diputación Foral de Gipuzkoa, departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas.

Ekonomia-, gizarte- eta energia-paradigma berrirantz iragateko, gizartea guztia nahasi behar da. Hori da aukera bakarra. Horregatik, hainbat proiektuk ecolocal izeneko metodologiari eutsi dio eta, hain zuzen ere, metodologia berdinarekin “herritarrak, ikastetxeak, gobernu-taldeak, udal-teknikariak... laburbilduz, ekonomia- eta gizarte-eragileak aktibatu nahi dira. Izan ere, gizartearen kideak gara eta energiarik garrantzitsuena, eraldatzen duena, pertsonen energia dela kontuan hartu behar dugu”.

La transición hacia un nuevo paradigma económico, social y energético sólo será posible con la implicación de la sociedad en su conjunto. Por ello, siguiendo la metodología ecolocal en la que se han apoyado algunos de los proyectos impulsados, se busca “la activación de la ciudadanía, los centros educativos, los equipos de gobierno, los técnicos municipales,….. en definitiva los diferentes agentes económicos y sociales que formamos parte de esta sociedad, porque la energía más importante, la que más transforma, es la energía de las personas”.

50/50 proiektuak ohituren aldaketa sustatu eta energiaren pertzepzioa aldatzeko tresnak dira. Jada energia ez da gai urruna, jardute-tarte txikia eskaintzen duena, alegia. 50/50 proiektuen filosofia zuzeneko irabazia definitzea da eta, horretarako, instalazio bat erabiltzen duten pertsonen kasuan, energia eta uraren kontsumoak aurreztean oinarritzen da; askotan, energiaren kontsumoari lotutako kostuak eta aurreztearen zuzeneko onuradunak ez baitituzte antzematen.

Los proyectos 50/50 son una herramienta para motivar el cambio de hábitos y modificar la percepción de la energía como una cuestión lejana y en la que hay poco margen de actuación. La filosofía de los proyectos 50/50 es establecer un beneficio directo basado en el ahorro de consumos de energía y agua para el colectivo de personas que hacen uso de una instalación y que en muchas ocasiones no perciben los costes asociados al consumo de energía ni son beneficiarios directos de los posibles ahorros.

ESKU93dd105a-0b0a-411d-a40f-34fbb3891453

Proiektuei esker, ikasturtean aurreztutakoaren % 50 ikastetxeari itzultzen zaio eta ikastetxeak zertan gastatu erabakiko du. Gainerako % 50 udalak inbertituko du, ikastetxeetan bertan energia-aurrezpen eta -eraginkortasunerako hobekuntzatan. Ikasturtean zehar, ikastetxeek energia-taldeak sortzen dituzte eta jarduera nahiz ekintzak abian jarri ere bai, ohiturak aldatuz kontsumoa hobetzeko. Energia-talde horietan eskola-erkidego guztia ordezkatuta dago: ikasleak, irakasleak, garbiketa-taldea, jangelakoa, atezainak eta familiak.

Estos proyectos se basan en el retorno al centro del 50% del ahorro conseguido durante el curso para que el colegio decida en qué se lo gasta. El 50% restante es invertido por el Ayuntamiento en mejoras en ahorro y eficiencia energética en los propios centros. A lo largo del curso son los propios centros, mediante la creación de un equipo energético, quienes ponen en marcha actividades y acciones para mejorar su consumo mediante cambios de hábitos. En estos equipos energéticos está representada toda la comunidad escolar: alumnado, profesorado, equipo de limpieza, de comedor, conserjes y familias.

Horiek horrela, energia eraginkortasuna bultzatzea eta gizartea kontzientziatzea helburu nagusia izanik, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikastetxe publikoetan 50/50 proiektua garatzeko laguntzen programa hau argitaratu da.

Por ello, con el objetivo prioritario de promover acciones que persigan la eficiencia energética y la concienciación social, se publica el presente programa de ayudas para desarrollar el proyecto 50/50 en los centros escolares públicos que imparten 5º y 6º de primaria.

Oinarri espezifiko hauen xedea da Errenteriako Udaleko Ingurumen azpisaileko dirulaguntzak norgehiagokarik gabeko konkurrentzia bidez emateko arauak ezartzea, hau da, eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak baiestea.

El objeto de las presentes bases específicas es la regulación de la concesión mediante concurrencia no competitiva; es decir, estimando todas las solicitudes que cumplan los requisitos exigidos.

**2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua**

Deialdi honetan dirulaguntzetara bideratuko den partidaren zenbateko guztia 12.000 € da, 2026ko aurrekontuaren partida honen kontura:

1.0530.481.01.323.00 2026

Partida horiek gero handitzen badira dagokion aurrekontu aldaketaren arabera, deialdi honi egozten ahal zaion gastu berria baimendu ahalko da.

**2- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones.**

El importe total de la partida destinada a la presente subvención es de 12.000€ con cargo a las siguiente partida presupuestaria del año 2026:

1.0530.481.01.323.00 2026

Si dichas partidas posteriormente fuesen ampliadas en base a la correspondiente modificación presupuestaria, podrá autorizarse nuevo gasto imputable a la presente convocatoria

**3.- Onuradunak.**

**3.- Beneficiarios**

ESKU93dd105a-0b0a-411d-a40f-34fbb3891453

Oro har, diru-laguntzen onuradun izango dira oinarri espezifiko hauetako 3. puntuan zehaztutako LH5 eta LH6 irakasten duten ikastetxeak, non Udalak energia-kontsumoak ordaintzeko legezko betebeharra baitu..

Serán beneficiarios los centros escolares públicos que que impartan 5º y 6º de primaria, donde el Ayuntamiento tiene la obligación legal de satisfacer los consumos energéticos.

Energia gastua Udalak bere gain hartzeko baldintza ezinbestekoa da proiektu honetan parte hartu ahal izateko. Energiaren kontsumo eta gastuen datuak Udalaren eskura baino ez daude.

El requisito de que el gasto energético sea asumido por el Ayuntamiento, es indispensable para poder participar en este proyecto. Los datos de consumos y gastos energéticos solo están a disposición del Ayuntamiento.

Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

El Ayuntamiento de Errenteria verificará, a través de la plataforma de intermediación NISAE, los siguientes datos para tomar parte en la convocatoria. En caso de oposición se deberán aportar los documentos acreditativos exigidos en la convocatoria.

- Foru Ogasunak - PFEZaren kontsulta.

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

- Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

- Haciendas Forales - Consulta de IRPF.

- Tesorería General de la Seguridad Social - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social.

- Diputación Foral de Gipuzkoa - Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

**4.-Diru-laguntza jaso dezaketen jarduketak eta diru-laguntzaren kopuruak.**

Proiektuaren exekuzio epea, 2025-2026 eskolako kurtsoa izango da, 2025ko irailaren 1ean hasi eta 2026ko abuztuaren 31ean bukatuko dena. Talde energetikoa proiektua eskolan martxan jartzen denean osatuko da.

Deialdi honi jarraiki Errenteriako Udalak harturiko konpromisoak honakoak dira:

**4.-Actuaciones objeto de subvención y cuantías de la subvención.**

El periodo de ejecución del proyecto comprenderá el curso escolar 2025-2026, iniciándose el 1 de septiembre de 2025 y finalizando el 31 de agosto de 2026. El equipo energético deberá constituirse en el colegio en la fecha en que se inicie la ejecución del proyecto.

Los compromisos adquiridos por el Ayuntamiento de Errenteria en virtud de la presente convocatoria son los siguientes:

ESKU93dd105a-0b0a-411d-a40f-34fbb3891453

- 50/50 proiektua garatzeko konpromisoa hartzen duten ikastetxeei Aurrezki Garbi Globalaren %50 ordaintzea, proiektua gauzatu ondoren.

- Abonar a los centros educativos que se comprometan a desarrollar el proyecto 50/50, el 50% del importe del Ahorro Neto Global, después de ejecutar el proyecto.

**5. Definizioak**

a) Aurrezpen netoa:

1. Produktu bakoitzaren kontsumoaren igoera edo jaitsiera kalkulatzeko, exekuzio epeko kontsumo erreala eta erreferentziazko kontsumoaren arteko diferentziarekin kalkulatuko da, eta behar izanez gero, unitate estandar batera bihurtuta.

2. Produktu bakoitzaren erreferentziazko kontsumoa, epe berdineko kontsumo errealen historikoekin kalkulatuko dira, gutxienez urte bat eta gehienez hiru, eta beste faktore zuzentzaile batzuk.

3. Desberdintasun positiboa (kontsumo gutxiago) edo negatiboa (kontsumo gehiago) hornitzaileak produktuen prezio unitarioen batezbestekoarekin biderkatuko da, aurrezpen neto positibo edo negatiboa lortuz.

b) Aurrezpen neto globala:

Aurrezpen neto globala, proiektuan sartutako produktu bakoitzaren aurrezpen netoen batura da. Aurrezpen global hau, positiboa edo negatiboa izan daiteke, azken kasu honetan, ikastetxeak ez du inolako ordainketarik egin beharko.

- Energia aurrezpena: kontsumoaren jaitsiera, neurketa unitateetan, argindarra eta gasarena.

- Edateko uraren aurrezpena: Udal sareko uraren kontsumoaren jaitsiera, neurketa unitateetan.

**5. Definiciones**

a) Ahorro neto por producto:

1. El menor o el mayor consumo de cada tipo de producto se calculará por diferencia entre el consumo real del periodo de ejecución y el consumo de referencia, en ambos casos en unidades de medida y, si procede, previa conversión a medida estándar.

2. El consumo de referencia de cada tipo de producto se fijará teniendo en cuenta históricos de los consumos reales de periodos de ejecución idénticos anteriores, con un mínimo de uno y un máximo de tres, y otros factores correctores.

3. La diferencia positiva (menor consumo) o negativa (mayor consumo) se multiplicará por la media aritmética de los precios unitarios del producto aplicados por el proveedor durante el periodo de ejecución, dando como resultado el ahorro neto positivo o negativo por producto.

b) Ahorro neto global:

El ahorro neto global es la suma de los ahorros netos de todos y cada uno de los productos incluidos al proyecto presentado. El resultado del ahorro neto global puede ser de signo positivo o negativo, en este último supuesto, esto no implicará que el colegio tenga que efectuar ningún abono.

- Ahorro energético: la disminución del consumo, en unidades de medida, de electricidad y de gas.

- Ahorro de agua potable: la disminución del consumo, en unidades de medida, de agua potable de la red municipal.

ESKU93dd105a-0b0a-411d-a40f-34fbb3891453

**6.- Talde energetikoak**

1. Ekipamenduaren talde energetikoa Errenteriako Iraunkortasuneko teknikariarekin eta ikastetxeko ikasle, irakasle, zuzendari, atezain eta jangelako langileekin eratuko da.

2. Talde energetikora ekipamendua erabiltzen duten taldeen ordezkariak gehitu daitezke, erabiltzaile komunitateak edota udalari zerbitzua eskaintzen dioten pertsonak.

3. Talde energetikoak ezartzen diren aurrezpen neurrien eta hauen eboluzioen jarraipena egingo du, erabaki egokienak proposatuz. Dokumentu bat sortuko da jarraipen hau eta aurrera eramandako ekintzak biltzeko.

**6.- Equipo energético**

1. El equipo energético del equipamiento se constituirá por el técnico de sostenibilidad del Ayuntamiento de Errenteria y de alumnos/as, profesores/as, directores/as, conserjes y personal de comedor del centro educativo.

2. Al equipo energético se podrán incorporar representantes de los usuarios del equipamiento o, si procede, de las diversas comunidades de usuarios existentes, y de las personas naturales o jurídicas que presten servicios al equipamiento.

3. El equipo energético hará seguimiento de la implementación de medidas de ahorro y de la evolución de los resultados obtenidos, proponiendo las decisiones más adecuadas para el logro de los objetivos de ahorro. De dicho seguimiento se elaborará un documento en el que quedará constancia de las actuaciones realizadas.

**7.-Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

Eskatzaileek Errenteriako Udalak 2026 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren seigarren oinarrian adierazitako dokumentazioaz gain, ondorengoa ere aurkeztu behar dute eskaerarekin batera:

- 2025/2026 ikasturtean 50-50 proiektuan parte hartzeko ikastetxearen konpromisoa.
- Diru-laguntza ordaintzeko banku-kontuaren zk.

**7.-Documentación a presentar con la solicitud:**

Los solicitantes deberán presentar con la solicitud, además de la documentación establecida en la base sexta de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2026, la siguiente documentación:

- Compromiso del centro educativo para participar en el proyecto 50/50 durante el curso escolar 2025/2026.
- Número de la cuenta bancaria donde realizar el ingreso de la subvención.

**8.- Eskabideak aurkezteko epea.**

**8.- Plazo de presentación de solicitudes.**

ESKU93dd105a-0b0a-411d-a40f-34fbb3891453

Dirulaguntza eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean hasiko da.

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención será de 30 días naturales que comenzarán el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**9.- Dirulaguntzaren justifikazioa.**

Ikasturtea bukatutakoan eta Udalak energia-fakturak jasotzen dituenean, Udalak ofizioz kalkulatuko du lortutako aurrezkia.

**9.- Justificación de la subvención.**

Una vez concluido el curso escolar y una vez que el ayuntamiento reciba las facturas energéticas correspondientes, el ayuntamiento de oficio realizará el cálculo del ahorro obtenido.

**10. Diru laguntzak ordaintzea**

Udalak lortutako aurrezkiaren %50 ordainduko d io ikastetxeari.

Dirulaguntzaren ordainketa Ingurumeneko zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena eman ondoren egingo da. Ordainketa, dirulaguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela egiaztatuta ondoren egingo da aldi bakar batean, eskaeran adierazitako kontuan egingo den diru-sarrera bidez.

**10. Abono de las ayudas**

El ayundamiento abonará al centro educativo el 50% del ahorro obtenido.

El abono de la subvención se realizará una vez aprobado el acuerdo definitivo de reparto de subvención por la concejala delegada de Medio Ambiente, previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió. El abono se realizará en un único pago, mediante ingreso realizado en la cuenta indicada en la solicitud.

**11. Onuradunen betebeharrak**

Oinarri orokorretan arautako bete beharrez gain, dirulaguntza deialdi edo programa honen bitartez arautzen diren dirulaguntzen onuradunek betebehar hauek izango dituzte:

a) Ikastetxean energia aurrezteko 50/50 proiektua garatzea. Horretarako, eskolan energia-talde bat sortu beharko du, deitutako bileretara joan, eta eraginkortasun energetikoa eta gizartea kontzientziatzeko ekintzak sustatu.

**11. Obligaciones del beneficiario**

Además de las obligaciones reguladas en las bases generales, los beneficiarios de las ayudas reguladas por la presente convocatoria de ayudas deberán cumplir, las siguientes obligaciones:

a) Desarrollar el Proyecto denominado 50/50 para promover el ahorro energético en el centro educativo. Para ello deberá crear un equipo energético en la escuela, y asistir a las reuniones convocadas, así como promover acciones que persigan la eficiencia energética y la concienciación social.

ESKU93dd105a-0b0a-411d-a40f-34fbb3891453

**Ohar garrantzitsua**: deialdi hau egin da Errenteriako Udalak 2026 urtean dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorrei jarraiki.Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

**Nota importante**: esta convocatoria deviene de las Bases Generales para la concesión de subvenciones por parte del Ayuntamiento de Errenteria durante el año 2026. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.